

Ordizian, **2016ko irailaren 12an**, Udaletxe honetako Alkatetza bulegoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	EH Bildu Ordizia
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

IRABAZIren ordezkaria den Carlos Gonzalez Astiz ere azaldu da.

AZTERTUTAKO GAIAK

- 1.-2016ko uztailaren 11ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak.
- 3.- "UPABI" 12 HIEko birpartzelazio proiektuaren hasierako onarpena.
- 4.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
 - Alokairu soziala. Behin betiko zerrenda. AOTren txostena.
 - Arkumearen jaia.
 - Goiekiren enplegu Plana.
 - EKIMENA proiektua martxan jartzea.
 - EROSKIko sarbidea berrantolatzeko eta Otegi Enean eta Buztuntzan N-1ean pantaila akustikoak ipintzeko Foru Aldundiaren diru-laguntzak.
 - Kontu-hartzaile berria. Burutu nahi dituen lehentasunezko lanak.
 - Alokairu soziala.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:00



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko uztailaren 11ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko uztailaren 11ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Gonzalez jn.

Bilerara joan zela esan du eta ez dela hori jaso. Zuzenketa egin da.

Aho batez onartu da.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- Fakturen zerrendaren berri eman da.

ZKIA.	ZENBATEKOA
41	6.957,50
43	43.572,23
45	28.140,69

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- “UPABI” 12 HIEko birpartzelazio proiektuaren hasierako onarpena.

Idazkariak jakinarazi du agiriaren hasierako onarpena egokitzen dela. Ondoren jendaurreko erakusketa egingo da 20 eguneko epean, eta jarraian behin betiko onartuko da.



4.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturak.

40, 42, 44 eta 46 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Oniritzia eman zaie.

.....

Alkate jaunak ondorengo gaiet buruzko informazioa eman du:

.- Arkumearen jai:

Jakinarazi du baimenean eta dagokion txosten teknikoan finkatutako baldintzetan burutu dela ekitaldia.

.....

.- Goiekiren Enplegu Plana. Eusko Jaurlaritzak onartutako eta Ordiziako Udalak bideratutako eskaeren berri (5 pertsona kontratatzeke) eman du.

1. Proiektua: Udalaren modernizazioa.	2. Proiektua: Ordizia Txukun.	3. Proiektua: Hiri Hezitzailea
<ul style="list-style-type: none">▪ Dokumentuen digitalizazioa.▪ Udal behatokia.▪ Zerbitzu Telematikoak.		
3 langile kontratatzea	Langile 1 kontratatzea	Langile 1 kontratatzea
<ul style="list-style-type: none">▪ Goi mailako teknikari 1. (Soziologia edo Zientzia Politikoak). Lanaldia: %60. Epea: 6 hilabete.▪ 2 Administrari. Lanaldia: %66. Epea, 6 hilabete.	<ul style="list-style-type: none">▪ Lanaldi osoan peoi 1. Epea: 4 hilabete.	<ul style="list-style-type: none">▪ Gizarte Hezitzaile 1 %60ko lanaldian 6 hilabetez.

.....

.- EKIMENA proiektua martxan jartzea 16 pertsonekin. Horrekin batera adierazi du Goierriko Lanbide Eskolaren formakuntza programa ere martxan jarri dela beste 16 pertsonekin.

.....

.- EROSKIko sarbidea berrantolatzeke eta Otegi Enean eta Buztuntzan N-1ean pantaila akustikoak ipintzeke Foru Aldundiaren diru-laguntzak.

.....

.- Kontu-hartzaile berria. Jakinarazi du Jose Luis Aranburu ordezkatu duen Kontu-hartzailea irailaren 1ean hasi zela lanean eta lehentasunez burutu nahi dituen lanak aipatu ditu: Ordenanta fiskalak eta 2017ko Aurrekontuak.

.....

.- Alokairu soziala: Laguntzen baremazio irizpideak finkatzeko Batzorde bat eratu behar dela esan du. Batzorde horretako kideak izan daitezke Gobernu Batzordeko kideak eta IRABAZIren ordezkaria.


Idazkariak diru-sarreren, familia unitateko kide kopuruaren eta abarren datuak emango ditu alokairu sozialerako diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko.

Posta elektronikoz bidaliko dira onartutako eskaeren datu zehatzak, Batzordearen bilera egiteko eguna zehaztuko da eta emango diren diru-laguntzak zenbatuko dira.



5.- Galde-eskeak.

Ez dago.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.